

# Europa osoak ikusi du

Duatloiak European duen hitzordurik garrantzitsuenean, protagonista izan da Irene Loizate durangarra. Ibizako proban 23 urtez azpiko onena izan zen eta nagusietan hirugarren amaitu zuen. Aurrerantzean aintzat hartu beharreko atleta izango dela erakutsi du. • 2-3

**"DA! asko dira!"  
izango da 53.  
Durangoko  
Azokaren leloa**



**Azoka** | Azokaren aniztasuna islatu gura izan dute antolatzaileek lelo horregaz. Karteleko irudia Txakur Gorria sormen kolektiboko kideek egin dute. Abenduaren 5etik 9ra izango da Durangoko Azoka. • 18

**Areitio gainean  
egingo dute Eibar  
futbol klubaren  
Kirol Hiri berria**

**Mallabia** | Eguaztenean futbol klubak egindako akziodunen batzarrean erabaki zuten. Lau futbol zelai izango ditu: belar naturaleko bi eta artifizialeko beste bi. Proiektua gauzatzeko tramiteak egiten hasiko dira orain. • 7



**Trafikoagatik,  
sinadurak batzen  
hasiko dira  
izurtzarrek**

**Izurtza** | Trafikoak herrigunean eragiten dituen arazoan aurrean, hainbat izurtzar plataforma batean batu dira. Bizkaiko Aldundiagaz batzartu gura dute eta, bide hori urratzeko, sinadurak batzen hasi dira. Asteburuan postu bat jarriko dute plazan. **6. orrialdean**

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



**Deskargarako  
Dumpera  
Deskargak  
altueran**



**Kontainerretan  
deskarga  
egiteko Dumper  
beldarra**

**Dumper  
beldarra  
500 kg**





LEHIOR ELORRIAGA

**Irene Loizate**  
**Sarrionandia**  
Europako duatloi  
txapelduna  
**Durango | 1995**

## “Bizikletan gustura ibili nintzen eta korrikarako indarrak gorde nituen; orduan erabaki zen dena”

Europako duatletarik onena da 23 urte baino gutxiagokoen artean. Adin horretatik gora ere atleta bi baino ez ditu gainetik. Joan zen asteburuan Ibizan jokaturako txapelketan Europa osoak ezagutu zuen Irene Loizate

**DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO**

**Iazko duatloien Europako txapelketan itzulia kendu zioten bizikletako ibilbidean eta ezin izan zuen amaitu. Urtebete geroago, 23 urtez azpiko Europako txapelduna da eta nagusietan brontzezko domina eskuratu du. Denbora gutxian, pauso bat beharrean jauzi handi bat eman du Irene Loizatek.**

**Iazkoaren ostean, nork esango zizun urtebete geroago Europako txapeldun izango zinela.**

Orduan ez nuen pentsatuko! Momentuan neure buruari esan nion: “Kito, ez dut Europako txapelketa gehiagotan lehiatuko. Zertarako ibili...”. Baina handik hilabetera berriro piztu zitzaidan gogo hori. Aurten ere, maiatzean txapelketa-

ra joateko deitu zidatenean, ez dut uste beharrezko maila hori nuenik. Harrezkero egindako entrenamenduetan lortu dut maila.

**Nagusietan zilarrezko domina gertu geratu zitzaizun Ibizan jokaturako txapelketan. Zelakoak izan ziren azken kilometroak?**

Bizikletako tartea amaitu genuenean duatleta bat aurretik zihoan eta taldetxo bat hari jarraika. Trantsizioan, zapatilak janzten, trabatu egin nintzen. Askotan gertatzen zait. Segundo batzuk galdu nituen. Korrika, aurretik nituen batzuk gainditu eta bigarrena harrapatu nuen. Kilometro biren faltan bizitu egin nuen erritmoa, bera nekatuta ikusten nuelako. Atze-atzean jarri zitzaidan. Bera zaintzen nindoan. Bostehun bat metrora eraso jo

nuen, baina nekatu egin nintzen eta irabazi egin zidan.

**Sandrina Illes austriarra zen. Zu baino 11 urte nagusiagoa eta munduko txapelduna izandakoa. Beteranoak bazekien zertan zebilen.**

Bai. Lasterketa amaitutakoan, argi ikusi nuen. Bere atzean jarri behar nuen eta azkenengo erasoak neuk jo. Baina, tira, horrelakoetatik ikasten da. Hurrengorako, badakit.

**23 urtez azpiko lorpena baino, seniorretakoa izan da sorpresa zuretzat. Onenetako batzuk falta ziren?**

Duatleta onak joan dira, munduko txapelketetan ibilitakoak. Egia esanda, entrenamenduetako denborak egin ditut Ibizan. Espero nuen egindako denbora. Ez dakit. Bizikletan gustura ibili nintzen eta korrikarako azken bost kilometroetarako indarrak gorde nituen. Orduantxe erabaki zen dena.

**Nori eskaintzen diozu Europako txapelketa?**

Jende askori, baina aukeratzekotan nire amama biei eskaini gura diet. Nire lasterketak ikustera etortzen dira eta badakit Europako txapelketa interneten streaming bidez jarraitzen ibili zirela nire familiagaz. Emozionatuta egon ziren. Mari Tere eta Nataliarentzat dira nire dominak. Aurten Zarautzen eman dut denboraldi bat eta goizetan kalean beroketa ariketak egiten hasten nintzenean, eurak biak nire alboan jarri eta nigaz batera aritzen ziren. Hirurok elkarregaz kirola egiten ibili gara.

**Urtebetean gorakada nabarmena egin duzula sentitzen duzu?**

Bai, batez ere korrika. Bizikletan ere nahikotxo hobetu dut. Estatuan eta European bizikletako ibilbideak errazak izaten dira. Taldean bazoaz, nahiz eta hain ona izan ez, defendatu zaitezke. Igerian, ordea, maila itzela dago eta falta zait oraindik.

**Badakizu zer gertatzen zaion irabazten hasten den gazteari: exigentzia maila igo egiten diote.**

Lehiaketa kanpotik aztertzen dutenekin gertatzen da hori. Guk sarritan, lasterketen ostean, askotariko gailuek jasotako datuak aztertzen ditugu eta beharbada lasterketako postuak erakusten duena baino hobeto aritu gara. Zure entrenatzaileak badaki, norberak badaki,

“**Amama biei eskaintzen diet txapelketa; proba internet bidez jarraitzen ibili ziren eta emozionatu egin ziren**”

“**Munduko txapelketa apirilean izango da, Pontevedran; aukera eman ez gero, joango nintzateke**”

baina kanpotik beste begi batzuekin ikusten da. Gainera, kontuan hartu behar da denboraldi osoan ezin zarela ehuneko ehunean egon. Batzuetan ez zaude sasoian, baina horrela behar du. Kirolarion artean ulertzen dugu. Baina kirola barrutik ezagutzen ez duenak, informazio faltagatik beharbada, ez du horrela ikusten.

**Espainiako txapelketako duatloietan zein triatloietan hainbat podium lortu dituzu denboraldi honetan. Denetatik zein bereiziko zenuke?**

Coruñaiko triatloi olinpikoa. Uretatik nahiko atzean irten nintzen, 40. postuan, eta korrika 30 bat postu aurreratu nituen.

**Europakoaren ostean, munduko txapelketa da hurrengo erronka?**

Munduko txapelketa apirilean da, Pontevedran. Hautatzaileek ez dakit zer kriterio erabiltzen duten aukeraketa egiteko, baina aukera eskainiz gero joango nintzateke. Nire lehenengo munduko txapelketa litzateke.

**Iaz Nafarroako Triakideak taldera batu zinen. Zer dela-eta?**

Eurek eskaini zidaten. Madrileko eta Galiziako talde banaren eskaintzak ere izan nituen. Baina Nafarroa gertuago dago, denak euskaldunak gara eta gurago izan nuen hara joan.

**Talde berria, taldekide berriak... Zelan joan zen egokitzea?**

Oso ondo. Lehendik ezagutzen nituen, lasterketetatik. Giro ona daukagu. Alde horretatik, pozik nago.



**Estatuko talderik onenetakoa da. Zeintzuk dira Champions-ean aritzearen alde onak eta ez hain onak?**

Alde onak bakarrik ikusten dizkiot. Bidaia eta hotelak ordainduta ditugu. Neure poltsikotik ordaintzekotan, ez nintzen toki askotara joango. Gainera, onenen kontra arituta ikasi egiten da. Gure taldean gazteak gara denak. Espainiako txapelketara joan ginenetik, neu nintzen nagusiena. Besteak, dezenteko gazteagoak ziren. **Mugarra Triatloi Taldean urte asko eman ostean batu zinen Trikideak taldera. Pena eman zizun Mugarra uzteak?**

Hemen entrenatzen jarraitzen dut eta Txelagaz [Serafin Bereziartu] eta beste batzuekin ibiltzen naiz bizikletan. Igerilekuan ere sarritan ikusten ditut.

**Beraz, ez zabilta Mugarra taldean, baina hartu-emanak mantentzen dituzu eurekin.**

Bai. Beste talde bategaz noala lasterketetara, horixe da aldaketa, batez ere. Bestela, ez da aldaketa handi bat izan.

**Umetatik kirol zalea izan zara?**

Ikastolan futboleko aritu nintzen DBHra arte. Gero, neskei ez zieten mutilen taldean ibiltzen uzten eta ezin izan nuen jarraitu. Saskibaloia probatu, baina ez zitzaidan gustatu eta errugbian hasi nintzen, DRTn. Urte bian aritu nintzen, 14 urtera arte. Azken urtean, triatloia eta errugbia tartekatzen nituen.

**Mugarra Triatloi Eskola sortu zuten urtean zu hantxe egon zinen.**

Bai, Oihana Quesadak entrenatzen gintuen. Oroitzapen onak ditut. Lehenengo urteetan lehia baino jolas estiloa zen. Zaletasuna piztu guran ibiltzen ziren eta nigaz lortu zuten. Triatloian ez bazen, errugbian jarraituko nuen. **San Fausto jailetan txupinazo txikia botatakoa zara Mugarragaz. Zer oroitzapen duzu?**

Orain urte bi izan zen. Paul Bereziartuak eta biok irakurri genuen testua. Denen aurrean mikrofonotik aritzeak ez ninduen erakartzen, baina polita izan zen.

**Pertsona lehiakorra zara?**

Bizitzan ez, baina kirolean bai. Entrenamenduetan eta lasterketetan lehiakorra naiz.

**Medikuntza ikasten zabilta. Zelan doaz ikasketak?**

Bai, Basurtun. Sei urte dira eta azkenengoan nabil. Datorren urte hasieran BAME (Barneko mediku egoilirarrak) azterketa dut eta aurrera begirako espezialitatea aukeratzea egokituko zait.

**Eta zein espezialitate gustatzen zaizu?**

Oraindik ez dakit. Gehien erakartzen nautenak kirurgia barneratzen dutenak dira. Praktikoagoak iruditzen zaizkit. Kontsulta batean baino hobeto moldatuko nintzela iruditzen zait.

**Medikuntza ikasteak lagundu diezaioke kirolari bati?**

Norbere gorputza hobeto ulertzen laguntzen duen heinean, bai. Gauzak beste era batera ikusten dituzu.

**Hori abantaila bat da.**

Batzuetan txarrerako ere bada. Esaterako, hanka batean mina datorikizunean, gutxi gorabehera badakizu zer izan daitekeen eta badakizu beharbada denboraldi batean geldi egon beharko duzula ondo osatzeko... Buruari bueltak ematen hasten zara. Kirolari batek ez du geldi egon gura.

**Arratsalde bat sofán jarrita egotea zigor bat da zuretzat?**

Arratsalde bat aguantatu dezaket, baina bi... seguruenik ez (barreak).

**Duatloiak, triatloiak eta... krosa. Azkenengo gehitu duzun espezialitatea da.**

Orain urte bi hasi nintzen, Santutxu taldekoek proposatu zidatelako. Aurretik banaka batzuk egin da nengoen. 23 urtez azpiko taldea atera gura zuten eta nigaz batera beste hiru korrikalari batu zituzten. Urte horretan Espainiako kros txapelketan azpitxapeldun geratu ginen, taldeka.

**Krosean Santutxu taldean ibili dira Iraia Garcia zornotzarra eta Gurutze Frades iurretarra. Zelako harremana duzu eurekin?**

“

**Urte bian errugbian jokatzen ibili nintzen; azken urtean, triatloiagaz tartekatzen nuen”**

—

“

**Krosaren alderik txarrena egutegia da; denboraldi hasieran izaten da eta ez naiz sasoiko egoten”**

—

Oso ona biekin. Gainera, Gurutze Fradesen mutil-laguna, Roberto Corujo, nire entrenatzaile pertsonala da. Oso gustura nabil beragaz. **Beharbada, baten batek Fradesen edo Garcíaren oinordekoa ikusiko du zuegan.**

Ez dakit, ba. Berba handiak dira. Intentzioa bai, baina ikusiko dugu. Gogo faltagatik ez da izango.

**Krosean jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, gustatzen zait. Kroseko alderik txarrena egutegia da niretzat. Ni denboraldia hasten nagoenean izaten da. Orduan ez naiz sasoiko egoten eta sufritu egiten dut.



Irene Loizate eskuman, Sandra Levenez Europako txapelduna erdian eta Sandrina Illes azpitxapelduna ezkerrean.



Irene Loizate, ezkerrean, uragaz freskatzen.



Loizate Espainiako triatloi txapelketan.



## Emakumeak historian zehar egindako lana aitortuko dute argazki erakusketa baten bidez

Ondare Jardunaldien barruan, emakumeak egindako lanari buruzko ekintzak prestatu dituzte Durangon; Kurutzesantu museoa otzaragintzaren eta ehungintzaren inguruko jardunaldi didaktikoak eskainiko dituzte Bea Unzuetak eta Olga Uribe, bihar eta etzi.

### DURANGO • MARKEL ONAINDIA

San Roke auzoko iturri batean arropa garbitzen ari dira hiru emakume, 1949an, eguneroko etxeko lanen barruan. Ricardo Doliwarena da argazkia. Emakumeak etxean zein kanpoan egindako horrelako lanak isilpean edo baliorik eman barik iragan dira denboran, eta lan hori aitortuko dute Durangon, Andragunean ipinitako erakusketa baten bidez. Doliwarenaren moduko beste 20 bat argazki ere ikusi ahaliko dira azaroaren 16ra bitartean. Sektore askotako emakumeak ageri dira: nekazariak, irakasleak, artisauak, garbitzaileak...

Aldundiak eta udalek antolatzen dituzten Ondare Jardunaldien barruko ekimena da erakusketa. Egitaraua orain dela egun batzuetatik dago martxan Durangon. Hurrengo egunetan, Arte eta Historia Museoa *Herejeen alaba* liburuaz berba egingo du Ander Berrojalbiz durangarrak, 31n, 19:00etan. Kurutzesantun, otzaragintzaz eta ehungintzaz

jardunaldi didaktikoak eskainiko dituzte Bea Unzuetak eta Olga Uribe, bihar eta etzi.

**Doliwarenaren moduko beste 20 bat argazki ere ikusi ahaliko dira azaroaren 16ra bitartean**

### Mallabian, lehenengoz

Ondare Jardunaldietan asteburuan Durangaldean egongo denari erreparatuta, nabarmentzekoa da Mallabian lehenengo aldiz parte hartuko dutela ekimenean. *Emakumeak, baserriak palaziora* izeneko bisita gidatuak egingo dituzte bihar, udalaren eta Gerediagaren eskutik. 16:00etan gaztelaniaz izango da eta 18:00etan euskaraz (izena ematea beharrezkoa da). Bestalde, bihar Berrizen eta Elorrioren ere bisita gidatuak eskainiko dituzte, eta Otxandion, domekan.



1949an, emakumeak garbiketa lanetan San Roke auzoan. RICARDO DOLIWARENA

## Balkoietan tela berdeak eskegitzera deitu du Durangok Planto taldeak

### DURANGO • M.O.

Herriko 11 elkartek bultzaturiko Durangok Planto mugimen-  
duak etxeko balkoietan tela berdeak eskegitzera deitu du. Udalak ez dituela euren eskaerak kontuan hartzen kritikatu dute, eta partaidetza bideak zabaldu gura dituzte herrian.

**Taldeko kideek eskerrak eman dituzte jaietan lortutako babesagatik**

Gainera, eskerrak eman dituzte jaietan lortutako babesagatik. Izan ere, txupinazoan 300 zapi berde banatu zituzten.



## Antso Estegizeko parkea auzokideekin batera inauguratu du EH Bilduk

Parkea eraberritzea auzo batzar batean irtendako ideia dela esplikatu du EH Bilduk



Auzoko gaiez berba egiteko ere aprobetxatu zuten atzoko ospakizuna.

### DURANGO • J.D. / M.O.

Joan zen astean, Antso Estegiz auzuneko parkearen eraberritzea amaitu dela iragarri zuen gobernu taldeak. Oinezkoentzat erosoagoa bihurtu dute, eta puntu beltza zenez, argitasuna eman diote lekuari. Atzo, bestalde, parkearen inaugurazio berezia egin zuten hainbat herritarrek, EH Bilduren deialdiari kasu eginez. Izan ere, alderdiak azaldu du auzuneko parkea hobetzeko ideia berak egindako auzo batzar batean irten zela, eta "eskakizun hori bete dela ospatzeko" elkartu zirela atzo.

Gainera, auzoko gaiez berba egiteko aprobetxatu zuten zita. EH Bilduk adierazi du beste auzoetan ere batzarrak egingo dituela datozen asteetan.

## TAO zerbitzuaren ordenantza berria martxan dago

### DURANGO • M.O.

Eguaztenetik martxan dago aparkatzeko TAO zerbitzuaren ordenantza berria Durangon. Aldaketarik esanguratsuenen artean, San Inazio auzoa ez da jada sistemaren parte, "ibilgai-luen artean ez delako aurreikusitako errotazio mailarik eman", udalaren arabera.

Bestalde, arratsaldeko ordutegia ordu erdi atzeratu da eta anbulatorio ingurua txandatzeko-maila altuko gunerak bihurtu da.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko urriaren 26a  
16. urtea - 739. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale

2015 **Bikam**  
Bikam  
Bikam

PEFC  
Produktu hau  
kontrolatutako  
basariek erabiltzen  
dute, eta hori  
garatzen du.  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Irigoras: "Durangarron ordezkari politiko guztiak hemen egon izana aurrerapauso bat da"

ETAk Epifanio Vidal hil zuenetik 40 urte bete ziren atzo, eta lore eskaintza egin zuten Ezkurdin bera oroitzeko

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

"Durangarron ordezkari politiko guztiak hemen egon izana eta lore eskaintza egin izana aurrerapauso bat dela uste dut, gure seme-alabei etorkizun hobe bat uzteko bidean". Aitziber Irigoras alkatearen berbak dira, atzokoak, ETAk hildako Epifanio Vidal oroitzeko egindako ekitaldiaren ostekoak. EAJ, EH Bildu, Herriaren Eskubidea, PSE-EE eta PPko kideek parte hartu zuten

**Gainera, Vidalen familiaren jarrerari balioa eman zion alkateak**

Ezkurdiko lore eskaintzan. Gainera, Vidalen familiaren jarrerari balioa eman zion alkateak, memoria berreskuratzeko lana "gorrotozik barik" egitearren.

**40 urte bete dira**

1978ko urriaren 25ean hil zuen ETAk Vidal. 27 urteko gaztea zen,

txapa-lantegi batean zebilen behargin bat. Hantxe bertan egin zioten tiro, auto batean hurreratu eta bere arreta lortu eta gero. Hain zuzen, bere hilketatik 40 urte betetzen

ziren egunean, Epifanio Vidalen emazteak eta semeak egin zuten atzoko hasierako lore eskaintza, Ezkurdin biktimen omenez ezarritako dagoen monolitoan. Familiaren

atzetik etorri ziren alderdi guztietako ordezkari politikoak eta beste zenbait herritar ere. Agintarien artean, Gogora institutuko Aintzane Ezenarrok ere parte hartu zuen.



Vidalen emaztea eta semea lore eskaintza egitekoan.

**Goi mailako ikasketak dituzten langabeei laguntzeko programa prest dago**

**DURANGO • M.O.**

Durungaldeko Amankomunazgoak, Behargintzaren bidez, hainbat programa garatzen ditu enplegua sustatzeko, eta horietako bat *Hazilan* da. Goi mailako ikasketak dituzten eta lana topatu ezinik dabilzan pertsonen laguntzeko da. Abenduan hasiko da zikloa eta azaroaren 15era arte eman ahalko da izena.

Lehen fase batean, euren gaitasun pertsonal eta profesiona-

**Abenduan hasiko da zikloa eta azaroaren 15era arte eman ahal da izena**

lak hobetzeko trebakuntza jasoko dute, lan mundura sartzea erraztuko dieten erreminten bitartez. Bigarren fase batean, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute.

Aurtengoa laugarren edizioa izango da. Orain arte, 32 partaidetik 22k aurkitu dute lana.



**KURUTZIAGA  
KASTOLA**

**BIZITZEKO HEZI**

**AZAROAK**

**10**

**Txartelak hartzeko epea  
urriaren 30a arte!**

**10:30 - 14:30 Landakogunean**

**PUZGARRIAK**

**12:00 Plateruenean**

**ANE eta PIRATEKIN PARRANDAN**

**12:30 - 14:30 Durangoko kaleetatik**

**MUSIKA**

**14:30 Landakogunean**

**BAZKARIA**

Txartelak Kurutziagako Idazkaritzan  
[www.plateruenasarrerak.eu](http://www.plateruenasarrerak.eu) atarian

**Bazkalostean**

**URTEURRENEKO EKITALDIA**

**17:00 Landakogunean**

**LUHARTZ** erromeria

[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)





# Izurtzako herritarrek sinadurak batzen hasi dira ibilgailuen gehiegizko abiadura dela-eta

Etixerik etxe joanda zein plazan jarritako postuen bidez jasotako sinadurak Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztuko dituzte

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Trafikoak herrian eragiten dituen arazoei aurre egiteko, plataforma batean batu dira hainbat herritar. Arazoa gizarteratzea eta irtenbideak eskatzea dituzte helburu nagusiak.

Herrigunetik pasatzean, ibilgailuek daramaten gehiegizko abiadura da kezkatzen dituen arazoetako bat. Izurtzako Udalak Bizkaiko Aldundiagaz izandako batzarrek fruiturik eman ez dutela ikusita, plataformakoek aurrez aurre batzartu gura dute Aldun-

**Zapatu honetan eta azaroaren 10ean plazan postu bat jarriko dute sinadurak batzeko**

diko ordezkariekin arazoen berri lehenengo pertsonan emateko. Bide hori urratzeko, sinadurak batzen hasi dira. Bi modutara egingo dute. Batetik, etxerik etxe ibiliko dira. Bestetik, plazan postu bi jarriko dituzte zapatu honetan eta azaroaren 10ean, 12:00etatik 14:00etara.

**Arauzko abiaduratik gora**

Plazako postuetan informazioa jasotzeko aukera izango dute herritarrek. Esaterako, Endara ingeniari elkarteak egindako azterketan agertzen den informazioa zabalduko dute. Txostenak jasotzen duenez, batez beste, egunero 7.780



Izurtza inguruko kale argiak mezuz beteta daude: gidariei zuzendutakoak dira batzuk eta Bizkaiko Aldundiari bideratutakoak besteak.

ibilgailu igarotzen dira Izurtzako herrigunetik, eta %50ek baino gehiagok araututako abiadura gainditzen du. Ibilgailuen %15ek 66 kilometro orduko abiadura gainditzen du eta detektatu duten

**Egoeraren aurrean irtenbideak eskatzen dituzte: radar bategaz zaintzea, biribilgunea...**

abiadurarik altuena 115 kilometro ordukoa izan da. Egoera horren aurrean, irtenbideak eskatzen dituzte plataformakoek: radar bategaz zaintzea, argidun panelak jartzea, biribilgune bat egitea...

## Umeentzako bertso eskola sortu dute Otxandion zortzi gazte gaz

**OTXANDIO • J.D.**

Iaz helduentzako bertso eskola jarri zuten martxan Otxandion. Beste pauso bat emanez, aurtengo umeentzako bertso eskola sortu dute herriko bertsozale helduen, udalaren eta gurasoen ekimenari esker. 6 eta 12 urte arteko —LHko lehen eta seigarren maila artekoak— zortzi gaztetxogaz hasi dira. Hilean klase bi izango dituzte: batean bertsolaritza landuko dute, eta bestean, literatura. Peru Abarrategi bertsolari aramaioarra izango dute maisu.

Otxandioko helduen bertso eskola ere martxan dago. Interesdunak helbide elektroniko honen bidez jarri daitezke hartu-emanetan arduradunekin: [gorrire@gmail.com](mailto:gorrire@gmail.com).

## Erein prozesuko lehenengo batzarrean inklusioa izan dute berba

**MAÑARIA • J.D.**

Herriko nagusientzat atsegina izango den Mañaria bi-latzen duen Erein prozesuko lehenengo batzarra egin zuten eguaztenean. Hainbat lagun batu zen batzarrean, eta inklusioaren eta errespetuaren ikuspegitik zer hobetu daitekeen aztertu zuten. Hurrengo batzarra azaroaren 21ean izango da eta herriko nagusiek garraioan dituzten arazoen inguruan jardungo dute.

# Neska zornotzar batek Bilbon jasandako sexu erasoak salatu dute kontzentrazioan

Zapatuan elkarretaratze jendetsua egin zuten Herriko plazan

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Zornotzako neska batek sexu erasoak jasan zuen Bilbon joan zen bariku goizaldean. Hurrengo egunean, udalak erakunde adierazpena onartu eta kontzentrazioa deitu zuen. Herritar asko batu zen deialdira. Kontzentrazio horretara Zornotzako Talde Feminista ere batu zen, eta talde honek beste batera deitu zuen hurrengo egunerako.

Udaleko bozeramaileen batzordeak, erakunde adierazpenaren bidez, erasoak "erabat gaitzetsi" zuen eta udaleko bitartekoak biktimaren zerbitzura jarri zituen. "Udalbatzak bere konpromisoa berretsi gura du bizitzaren, askatasunaren, duintasunaren eta emakumeek herritar moduan dituzten eskubideen kontra eraso egiten duten indarkeria mota denak errotik ezabatzeko".



Joan zen zapatuan Herriko Plazan egindako kontzentrazioko irudia.

## Bost musika taldek kalea izango dute eszenatoki Lutaber Fest lehiaketan

**ZORNOTZA • J.D.**

Zapatu arratsaldean bigarren aldia egingo du Lutaber Fest lehiaketak. Luis Urrengoetxea kalearen inguruko hiru gunetan, bost musika taldek 45 bat minutuko bina kontzertu eskainiko dituzte. Blanco y en Botella, Bonus Track, The Dirty Road Band, Eneko ta Maitane eta Eztandap dira talde parte-hartzaileak. Sari bi banatuko dituzte: epaimahaiarena eta herritarrena. Bietan 350 euroko saria jasoko du irabazleak.



# Akziodunen erabakiz, Areition egingo dute Eibar klubeko Kirol Hiria, eta lau futbol zelai izango ditu

Areitio gaineko proposamenak 11.682 akzio batu zituen eguazteneko batzarrean, Azitaingo aukerak baino 5.621 gehiago

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Eibar futbol taldeak akziodunen batzar orokorra egin zuen eguaztenean. Etorkizuneko Kirol Hiria egiteko zeuden proposamen bien artean bat aukeratzea zen gai ordeneko puntu bat. Akziodunek Areitio gainaren aldeko apustua egin

**Igor Aguirre: "Proiektu garrantzitsua da eta aukera bat da Mallabiarentzat"**

zuten. Mallabiko aukerak aldeko 11.692 akzio jaso zituen, Azitaingo beste aukerak baino 5.621 gehiago.

Etorkizuneko kirol azpiegiturak lau futbol zelai izango dituzte: belar naturaleko bi eta belar artifizialeko beste bi. Bosgarren bat egiteko aukera ere izango du. Jatetxea zegoen eraikina berriztatu eta lehenengo taldearen beharritararako egokituko dute. Ondoa, aparkaleku bat egingo dute. Proiektuak 16 milioi euroko inbertsioa eskatuko dio Eibar klubari, obra zibilaren eta lurzatiaren erosketaren artean.



Eibar klubeko azpiegitura berriek Areition izango duten itxura jasotzen duen irudia. Eibar futbol kluba

Mallabiko udal arduradunek balorazio positiboa egin dute. "Proiektu garrantzitsua da eta aukera bat da Mallabiarentzat", adierazi du

Igor Aguirre alkateak. EH Bilduko Aitor Loiolak ere "ondo ikusten du" azpiegitura han egitea: "Lur eremu bati probetxua aterako zaio eta horren bidez udalak jasotzen duen dirua herrian inbertituko da".

Eibar klubeko arduradunak ere pozik agertu ziren eguazteneko batzarrean. "Egun historikoa da gure klubarentzat", adierazi zuen Amaia Gorostiza klubeko presidentea.

Orain ez dute denborarik galduko. Lurrak erosteko aurreakordioak betetzen eta hirigintza tramiteak egiten hasiko dira, klubetik iragarri dutenez.

## Astelehenetik aurrera Eibarko ospitale berria erabili ahalko dute mallabitarrek

**MALLABIA • J.D.**

Asteon Eibarko ospitale berria inauguratu dute, Iñigo Urkullu lehendakaria eta hainbat erakundetako ordezkariak han zirela, tartean Igor Aguirre Mallabiko alkatea. Zerbitzurik gehienak astelehenetik aurrera egongo dira erabilgarri. Mallabiari hainbat onura ekarriko dizkio. Alde batetik, zortzi arlotako espezialitateak (kardiologia, arnasketa, barne medikuntza, neurologia, erreumatologia, errehabilitazioa, traumatologia, endokrinologia) toki berean kontzentratuko dira, Eibarren, eta ez batzuk Eibarren eta besteak Mendaron. Bestetik, Eibarko larrialdi zerbitzua ere erabili ahalko dute. Ermuan dagoenagaz alderatuta, abantaila bat du: erradiografiak egiteko aukera eskaintzen du.

Hainbat solairutan banatutako 21.000 metro karratutan 200 profesionalek lan egingo dute. Jaurilaritzak 27 milioi euroko inbertsioa egin du ospitalea martxan jartzeko.





Ziklo nahasian kontsumoa 6,0-6,1 (l/100km) eta CO<sub>2</sub> isurtzea 136-140 (g/km)<sup>3</sup>.

## Clase A Berria. Just like you.

Ikus ezazu Clase A Berria, ahotsaren bidez gida dezakezun adimen artifizialeko sistema berritzailez hornitutako autoa, bere mailako bakarra. Horrez gain, badauzka ukimen-pantaila multimedia eta errealtate areagotua eta hiririk gabeko konektagarritasuna daukan nabigatzeko beste pantaila bat. Auto paregabea, zu bezalakoa.

**Clase A Berria 200 250€/hilean<sup>1</sup>, 48 kuotatan.**

Hasierako diru-ekarpena: 10.345,31€

Irteera-eskaintza: AMG linea eta Premium paketea

<sup>1</sup> Finantzaketa-adibidea: Clase A 200 250€/hilean BEZ barne, sarrera 10.345,31€ BEZ barne, 48 kuotatan eta 80.000Km. Baliozko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat eta 2018/12/31ra arte egindako eskaerak, 2019/01/15era arte onartutako eskaera eta kontratua indarrean 2019/02/28ra arte. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting, S.A. (Bruselas etorbidea 30, 28108 Alcobendas-Madril)-ek komertzializatutako marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintza agertutakoari (2). CO<sub>2</sub>-ri dagokion baloreak "NEDC CO<sub>2</sub>" entsaioaren prozeduraren arabera lortu dira. Hau (UE) 2017/1153 Aplikazio-araudian (2 artikuluan, 1 zenbakian) arautzen da eta (CE) 692/2008 Araudiaren XIII. eranskinaren arabera kalkulatu da. Erregeiaren kontsumoa balore horiek kontuan hartuta lortu da. Europako gidatzearen zikloaren prozeduraren egondako araudiaren aldaketaren ondorioz, une bakoitzari dagokion entsegu-sistemak kontuan hartuko dira. Hori dela eta, ibilgailuaren adostasun-ziurtagiria ez ezik, fitxa teknikoan ere balore altuagoak ager daitezke. Balore hauek garrantzitsuak dira ibilgailua matrikulatzeko unean eta, matrikulazio-zergan edota Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan ere eragina izan dezakete. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en)



### Aguinaga

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. [www.aguinaga.mercedes-benz.es](http://www.aguinaga.mercedes-benz.es)



## Arrazolako udal etxebizitzetan izena emateko aukera dago hile honetan

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Arrazolako udaletxe zaharrean dauden etxebizitzetan izena emateko aukera zabaldu du Atxondoko Udalak. Bando bidez jakitera eman dutenez, interesdunek urriaren 30era arte izango dute aukera eskaerak udal bulegoan aurkezteko.

2010ean, Atxondoko lehenengo etxebizitza sozialak egin zituen udalak Arrazolan. Udaletxea egon zen eraikinean lau apartamentu egin zituzten: lo-

**Interesa daukatenek urriaren 30era arte daukate aukera eskaerak udal bulegoan aurkezteko**

gela bakarreko apartamentu bi, logela biko bat eta hiru logelako beste bat.

Orain, Arrazolako etxebizitza horietako batean bizi gura duenak aukera dauka eskaera orria udaletxean aurkezteko.

## Ikasketa gela berria zabaldu dute Berrizen, asteburuetan ikasleek erabiltzeko

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Liburutegiko ordutegia osatzeko asmoz, ikasketa gela berri bat zabaldu dute Berrizen. Zerbitzu berri honen helburua Berrizko ikasleek asteburuetan ere ikasteko gela bat izatea da.

Gaur egun, udal liburutegia martitzenetik barikura 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era egoten da zabalik. Astelehenetan, arratsaldez bakarrik, eta zapatuetan, goizez.

Zengotitabengoa 8an, ambulatorio zaharrean, zabaldu

**Anbulatorio zaharreko gela berria 17 urtetik gorakoentzat zabalduko dute**

duten gelagaz liburutegiko ordutegia osatu gura dute. Beraz, hemendik aurrera, zapatu, domeka eta jai egunetan gela 16:30etik 21:00etara erabilgarri egongo da 17 urtetik gorako ikasleentzat.



Martitzenean Durangon eginiko elkarretaratzea, Andra Marian. Julen Orbegozo

## Euskal presoek ezarritako zigor luzapenak amaitzea eskatu dute

Estrasburgoko auzitegiaren epaiak "sufrimendua areagotzen" duela uste du Sarek

**DURANGALDEA • A.M. / M.O.**

Delitu beragatik Espainian eta Frantzian zigortu dituzte euskal preso ugari, baina ez diete zigorra bateratu eta kartzelaldi biak bete behar dituzte. Gehienak ETAgaz lotutako presoak dira eta urteetako zigorrak dituzte betetzeko. Egoera horren aurrean, Estrasburgoko auzitegira eraman zuten gaia, eta martitzenean etorri zen erantzuna: zigorrak luzatzea ahalbidetuko du. Epai hori salatzeke, elkarretaratzeetara deitu zuen Sare mu-

gimenduak egunean bertan, "sufrimendua areagotzen" duela uste baitu. "Mendekuan oinarritzen

**Espainiako kongresuko diputatuei Europako arauak betetzea eta urratsak ematea eskatu die**

den lege bati aurre egin eta justiziaz jokatzeko eskatu beharrean, beste aldera begiratu eta egoera

hau bere horretan mantentzea dakar", adierazi du. Espainiako kongresuko diputatuei Europako arauak betetzea eta urratsak ematea eskatu die Sarek.

Mugimenduak nabarmendu du 40.000 lagun batu zirela zapatuan Donostian, "orain arteko manifestaziorik anitzenean", eta bide horri eusteko deia egin du.

Bestalde, Sarek antolatzen duen zozketaz informatu dute. Hauek dira zenbaki saridunak: 26253, 61109 eta 58017.



## Garaiko pilotalekuko teilatua konpondu dute, hile biko obraren ostean

**GARAI • MARKEL ONAINDIA**

Hile bi inguruko lanaren ostean, amaitu dituzte Garaiko pilotalekuko teilatua konponatzeko obrak. 2018ko udal aurrekontuko inbertsiorik garrantzitsuenetako bat izan da, 83.000 euroko adjudikazioagaz. Gainera, Aldundiaren laguntza eduki dute egitasmoa aurrera eramateko, 22.800 eurokoa hain zuzen ere.

Asteon zorua garbitzen ibili dira eta datozen egunetan instalazioa berriro ere erabilgarri egongo da pilotarientzat eta gainerako herritarrentzat. Hainbat dira ordua erreserbatzen dutenak pilotalekua erabiltzeko, eta hile bi hauetan ezin izan dira joan bertara jokatzera.

## Abadiñon sinadurak biltzen ari dira, OHZ zergaren tipoa jaistea eta katastroa birkalkulatzea eskatzeko

OHZren igoerari esker 2017an 643.728 euro "irabaztea" leporatzen dio auzotar talde honek Abadiñoko Udalari

**ABADIÑO • A.B. / A.M.**

Abadiñoko bizilagun talde bat sinadurak biltzen ari da udalari OHZ zergaren tipoa jaistea eskatzeko. Izan ere, Abadiñoko tipoa %0,25-0,32 bitartekoa da. Durangaldeko altuena dela salatzen dute. Gatazkaren sorrera 2016an jartzen dute, Bizkaiko Aldundiak katastroa berrikusi eta eguneratzea erabaki zuen garaian. Etxeen balio katala "ikaragarri" igo zela diote. Era berean, "eguneraketan katalogazio okerra" egitea ere kritikatu dute. Bizilagunen berbetan, OHZren tipoa udal bakoitzak ezartzen du eta "zerga duin bat kobratzeko modukoa" jartzeko eskatzen diote udalari. Horrez gainera, landa eremuetako baserri gehienei eragiten dien 180.000 euroko langa aldatzeko ere eskatzen dute. Katastroaren

kalkuluan konponketak egitea ere sartzen da eskakizunen barruan.

**"Baserritarrei babesa"**

Hain zuzen ere, baserri guneetako bizilagunei lagundu guran, Abadiñoko Udalak diru-laguntza bat es-

**42.000 euroko diru-atala bideratuko du udalak, baserrien jabeek zergaren erdia ordaintzeko**

kaini du eta baserrietako jabeek laguntza hori eskatzeko aukera izango dute OHZ ordaintzeko; zergaren erdia ordaindu ahal izango dute baserritarrek. Laguntzak eskatzeko epea zabalik dago jada, abenduaren 31ra arte.



Baserritarrek diru-laguntza eskatu dezakete OHZren erdia ordaintzeko.





# Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

## Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

### 3D PRINT COLOR

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.  
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

### EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### GINNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.  
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

### HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreraren.

### IURRETA KOPISTEGIA

-%5 eskola eta bulego materialean.  
-%5 opari eta liburuetan.  
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologan, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

### MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-%5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.  
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.  
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

### OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

### URKI KOPISTEGIA

-%10 amantaletan  
-%10 jolasetan

### URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.  
-%10 papergintzan.



### HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.



### IURRETA KOPISTEGIA

-%5 eskola eta bulego materialean.  
-%5 opari eta liburuetan.



### URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.  
-%10 papergintzan.



## Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagu-

[www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org) · 946 816 558



Anboto  
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



## Anbotoren lagunak

Oraindik ez zara ANBOTO LAGUN?  
Izena eman eta parte hartu datorren hileko zozketan!

Ibarra Sagardotegian bi pertsonentzako bi menu.



Anboto  
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 · [www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org)



2 menu

AURREKO HILEKO  
ZOKKETAREN  
IRABAZLEAK

**afede** - KO  
BI BONU

BORJA RELAÑO  
BIDATZ PORTALO

**ZORIONAK!**



# Gerra garaiko materiala biltzen dabilta Elorrion, erakusketa egiteko

Laumunarrieta elkarteko kideek 2019ko martxoan egin gura dute erakusketa



Laumunarrieta elkarteko kideak.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Memoria historikoa deshobiratzeko asmoz, elorriar talde batek Laumunarrieta elkartearen eratu zuen 2018ko martxoan. Orainsu arte Elorrioko bonbardaketaren inguruan ezer gutxi jakin izan denez, memoria historikoa berreskuratze-ko asmotan lanari ekin zioten. Ordutik hainbat ekimen egin dituzte.

2019ko martxorako, esaterako, Laumunarrietako kideek argazki,

**Memoria historikoa berreskuratze-ko asmoz, lanean dabil Laumunarrieta elkarte**

**Herritarrei dei egin diete, gerra garaiko materialik badute erakusketan jartzen uzteko**

dokumentu eta material erakusketak egin gura dute. Horretarako, elorriarrei eta inguruko herrietako herritarrei dei egin diete, gerra garaiko materialik badute erakusketan jartzen uzteko. Materiala erakusketarako uzteko prest daudenek 636 812 055 telefonora deitu dezakete edo [laumunaelorrio@gmail.com](mailto:laumunaelorrio@gmail.com) helbidera idatzi.

## Kudeaketa berriagaz, kirol instalazioetan zer zerbitzu eskaini erabakiko du udalak

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Orain arte kirol instalazioetan egon den eredu aldatu gura dute Elorrion. Hori horrela, aste honetan egindako bilkuran, kirol instalazioetan dagoen kudeaketa integraletik kudeaketa mistora pasatzeko erabakia babestu dute EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak. "Eredu berri honi esker, kudeaketa hobea izango da. Esaterako, udalak erabakiko du ze zerbitzu eman, eta erabiltzaileen beharrak hobeto asetuko ditugu", adierazi dute gobernu taldeko kideek.

EAJko kideek erabakiaren kontra bozkatu dute eta kudeaketa honek "gastu eta galera gehiago" ekarriko dituela adierazi dute. "Orain arte zerbitzu onak izan ditugu eta ez dugu aldaketa ulertzen", aitortu du Joseba Mujikak.

Buruaga alkateak esan du enpresagaz ez dagoela arazorik. Arazoa modeloagaz dagoela. Bestalde, aldaketa "bideragarria" dela eta EAJ "gezurretan" dabilela ere esan du.

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Herrian dauden oinezko ibilbideak oinarri hartuta, seinaleztaturiko ibilbide bi prestatu ditu Iurretako Udalak. Aisialdi aktiboa sustatu gura dute ibilbideekin, eta proiektuaren ardura duen Orbela enpresak

## Mendi-ibiliak eginez, aisialdi aktiboa sustatzeko ibilbide bi prestatu dituzte

Orbela enpresa da proiektuaren arduraduna, eta Zaldai mendi taldearen laguntza izan du

**Ibilbideak ezagutarazteko zazpi kilometroko ibilaldia egiteko aukera egongo da, domekan**

Zaldai mendi taldearen laguntza izan du ibilbideak diseinatzeko.

Ibilbideetariko bat herriaren iparraldetik doa (21,3 km), bestea, hegoaldeko (17,3 km), eta bietan

dago saihesbide laburragoak hartzeko aukera. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "ibilbide seguru eta atseginak erabilia mendi-ibiliak egitea sustatzea da helburua, eta portaera osasungarriak bultzatzea. Aldi berean, naturarekiko errespetuaren alde lan egin gura dugu". Ibilbideok ezagutarazteko, biak lotzen dituen zazpi kilometroko ibilaldia egiteko aukera egongo da. Aita San Migel plazan elkartuko dira domekan, 10:00etan.



Norabide-seinaleak eta argibide taulak jarri dituzte ibilbidean zehar.

## Futbolin txapelketa jokatu dute Zaldibarko gaztetxean

**ZALDIBAR • A.M.**

Barikuan, urriak 26, futbolin txapelketa jokatu dute Zaldibarko gaztetxean. 22:00etan hasiko da txapelketa. Izen-ematea egunean bertan egingo da, 4 euroan, eta talde irabazleari batutako diruaren %75 emango diote; beste finalistei, batutakoaren %25.

Bestalde, azaroaren 10ean izango den eskualdeko gaztetxeen eta gazte asanbladen egunera batzeko deia ere egin dute.



**Jolasten ikastea errazagoa delako**

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

**Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.**

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org MUGIKORREAN**

Available on the App Store

GET IT ON Google Play





Kirikiño (erdian) Ojanguren argazkilari eta Elgezua eskultoreagaz. Gerediaga elkarteko arxiboa

## Hareek denporak!

# Gaur 152 urte jaio zen Ebaristo Bustintza 'Kirikiño'

1866an, gaurko egun batez — urriak 26—, jaio zen Ebaristo Bustintza 'Kirikiño' Mañariko idazle, poeta, irakasle eta kazetari ezaguna. Etxanoa baserrian eman zuen umezaroa.

1899an, 33 urte zituela, Euskalzale aldizkarian kolaboratzaile hasi zen. Indarrak gehien Euzkadi egunkariko *Euskal Atala* zuzentzeari eskaini zion. Egunero argitaratu zuen idatziren bat 'Kirikiño' ezizena erabiliz,

harik eta 1928an atala idazteari utzi zion arte. *Abarrak* liburua baino ez zuen argitaratu eta arrakasta handia izan zuen. Idazlearen asmo nagusia euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztea zen, irakurleari irakurketa erraztuz. Bustintzak narrazioa landu zuen gehien bat, baina antzerkian eta poesian ere saiatu zen, Txelu Angoitiak egindako *Mañaria Harritzko Herria* liburuan jasotzen denez.

## Sei hankako mahaia

Pila  
Rios Ramos  
PSE-EE



### Ondareari buruzko jardunaldiak

Aurtengo jardunaldiek *Ondare*, emakumeen emaria - *patri-monio*, herencia de mujer dute izenburu, eta emakumeen zereginen ardaztuta daude. Emakumeek lurraldearen eraikuntza kulturean eta ekonomikoan egindako ekarpena agerian jarri eta duindu nahi da. Ezinbesteko kontua da emakumeek herrien garapenean betetako zeregina onartzea, eta oso pozik gaude aurtengai monografiko gisa lantzen ari delako.

Izan ere, uste ohi denaz bestera, emakumeek beti egin dute lan etxe barruan eta kanpoan, gizarteek arlo guztietan aurrera egin zezaten. Alabaina, askotan ez dakigu zein diren ekarpen horiek, historiak isildu egin dituelako. Orain dela gutxi arte historiak ez du gutaz hitz egin, kontzientzia hartutako emakume batzuk iragana genero-ikuspegitik lantzen hasi diren arte.

Instituziook ere beste horrenbeste egin dugu. Udal honetan gauden emakumeok ahalegina egin dugu emakumeek izandako lorpenak berreskuratzeko eta ezagutzera emateko.

Dakizuenez, hainbat ekimen egin ditugu, besteak beste, espazio publiko batzuei emakumeen izena eman eta ikerketa historikorako beka-deialdia egin. Berdintasun Arloak antolatutako jardueren artean, argazki-erakusketa nabarmendu behar dugu: urriaren 25etik azaroaren 16ra arte egongo da ikusgai Andragunean, eta Udal Artxiboaren lankidetzarekin prestatu dugu. Arlo asko jorratzen dira, emakumeek hainbat zeregin bete baitzituzten historiako subjektu gisa: nekazariak, jornalariak, eskulangiak, garbitzaileak, inudeak, hazamak, maistrak, etab.

## Durungaldea asteen

### Errigorako kanpainako produktuak eskuragarri daude, azaroaren 14ra arte

**Durungaldea** | Nafarroa hegoaldeko 23 etxeren produktuak eskuragarri daude dagoeneko, Errigora ekimenaren udazkeneko kanpainan. Azaroaren 14a izango da eskaerak egiteko azken eguna, herririk herri banatuko diren fitxen bidez edota [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) atariaren bidez. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari* puzka izena du kanpainak; 2013tik hona, 800.000 euro bideratu dituzte zonalde hartako euskalgintza laguntzera.

### Bigarren eskuko materialagaz merkatu txikia antolatuko du Alpino Tabirak

**Durango** | Alpino Tabira mendizale taldeak jakinarazi du merkatu txikia antolatuko duela azaroaren 9an eta 10ean, Goienkaleko egoitzan. Jendeak eramandako mendirako edozein osagaiekin beteko dute merkatua, eta bigarren eskuko produktu lez salduko dituzte. Azaroaren 9an 17:00etatik 21:00etara zabalduko dute, eta 10ean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

### Haur minbizia ikertzeko batutako 9.000 euroak, Abadiñotik Gurutzetara

**Abadiño** | Joan zen ekainaren 10ean haur minbiziaren aurkako elkartasun maratokia egin zuten Abadiñon, udalak antolatuta. 350 lagunek parte hartu zuten, eta 9.000 euro batu zituzten denentzako. Orain, diru hori Gurutzetako ospitalera eraman dute, Bio Gurutzeta-Bizkaia ikerketa taldearentzat. Javier Crespo Gizarte Ekintzako zinegotziak eta jaietako zinegotzi Ima Zapardiezek eman diete txekia ospitaleko ordezkariak.



### Fotodenuntzia Abadiñotik

Argazkian agerikoa denez, zuhaitzaren adarrak lehen pisuko balkoira heltzen dira eta toldoa ezin da behar bezala zabaldu. Noiz inausi behar dute? Zuhaitza hirugarren pisura heltzen denean?

Jose Lizundia Ayarzagüena  
Traña-Matiena (Abadiño)

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Zure  
iragarkia  
jarri nahi  
duzu?

94 621 79 02

anboto  
komunikabideak



Seguros  
Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe



Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltan.com](http://saltan.com)





## Umeen Euskal Jaia

DANTZA

DURANGO :: Urriak 28

### 400 bat dantzari gazte elkartuko dira Durangoko kaleetan

Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek antolatuta, 400 bat ume eta gazte batuko dira domekan. Durangaldeko hamar taldek eta Ses-taoko beste batek parte hartuko dute. 11:30ean kalejira hasiko da eta 17:00etan alardea egingo dute Ezkurdin (euria bada, Landako Gunean).

### Urriaren 26an

**DURANGO azoka**  
'Berreskuratutako liburu eta diskoen azoka solidarioa', 09:30-14:00 bitartean, Andra Mariko arkupean.

**DURANGO artea**  
'Margolan Itzuliak' erakusketaren inaugurazioa, 19:00etan, Arte eta Historia museon.

**DURANGO narrazioa**  
'Cuentos del Japón' helduentzako ahozko narrazio saioa Yoshi Hiokiren eskutik, 19:00etan, Bizenta Mogel udal bibliotekan.


**ZORNOTZA dantza**  
'Ufadak' dantza ikuskizuna La Pulga eta Lagunak-en eskutik, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

**MALLABIA jaiak**  
'Urriko jaiak'. Tailerrak umeentzat, 16:30ean, eskolan, buruhandiak, 17:00etan, eskolako frontoian, txupinazoa, 18:30ean, udaletxeko balkoitik, Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan, Dunbots txaranga kaleak animatzen, 18:00-20:00 bitartean, oilasko pintxoak plazan, 20:00etan, EZ3, 20:30ean, plazan, Rock Brothers Duo, 22:30ean, plazan.

**ZALDIBAR deialdia**  
Futbolin txapelketa, 22:00etan, gaztetxean.

### Urriaren 27an

**ELORRIO bisita gidatua**  
'Ahoz-aho' bisita gidatua, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, 11:00etan, udaletxean.



**BERRIZ bisita gidatua**  
'Emakumeak Palazioan eta Komentuan. Berrizko Markesa eta Margarita Maturana' bisita gidatua, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, 10:00etan eta 12:30ean (gaztelaniaz), udaletxean.

**BERRIZ musika**  
'Zazpi Senideko' antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean.

**ELORRIO musika**  
Wood Strings taldearen kontzertua, 22:30ean, gaztetxean.

**ELORRIO lehiaketa**  
'XXIX. Errebonbilo' margo lehiaketa, herri erdigunean.

**DURANGO narrazioa**  
'Bazen behingo munduan...' helduentzako ahozko narrazio saioa Oihana Etxegibelen eskutik, 12:00etan, Bizenta Mogel udal bibliotekan.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Inondik Inora' antzerkia Benetan Beren eskutik, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

**DURANGO poesia**  
Leon Feliperen poesia errezitaldia Patxi Dinamitaren musikagaz, 19:00etan, CNTren lokalean.

**MALLABIA jaiak**  
'Urriko jaiak'. Nesken frontenis txapelketa, 09:00etan, frontoian. Mallabiko III.Ardau Ferixie, 12:00etan, probalekuan. 'Emakumeak, baserritik jauregira' bisita gidatua, 16:00etan gaztelaniaz, eta 18:00etan, elizan. Txiki txef umeentzat, 17:00etan, parkeko aterpe berrian.

**DURANGO musika**  
'Txoriei' kontzertu berezia François Rossé, Mixel Etxekopar eta Et Incarnatus Orkestragaz, 20:00etan, San Agustinen.

### Urriaren 28an

**ELORRIO kirola**  
'Elorrioko Basqueland Nazioarteko Ziklokros txapelketa', 09:00etan, herri erdigunetik.



## Ehsan Ullah Khan

BERBALDIA  
DURANGO :: Urriak 27

Ullah Khan pakistandarrak haur esklabotzari buruzko berbaldia eskainiko du, 11:30ean, Jesuiten Arrupe aretoan. Ehungintza industria salatzeagatik exilioan bizi da. 13:30ean, mobilizazioa egingo dute Kurutziagan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



# ROCK GAUA

## Mallabiko urriko jaietan

**MUSIKA** • Heldu dira Mallabiko urriko jaiak, eta asteburuan ekintza ugari edukiko dituzte herritarrek eskura. Bihar gauean rock kontzertu indartsua egongo da, Ze esatek!, Governors, The Van –berritzarrak– eta Please taldeekin. Doakoa izango da eta eguraldi txarra datorrela kontuan hartuta, karpabat ipintzea erabaki dute.



# 'Gloria Fuertesi ikasitako poemak'

**POESIA** | Gloria Fuertes poeta madrildarraren lanari aitortza egiteko jardunaldietan murgilduta dabilta Iurretan, iaz Joseba Sarrionandia etxeko idazleagaz bide hori hasi eta gero. Urriaren 15etik hona, hainbat irakurketa saio eta tailer jorratu dituzte, eta gaur izango da ekitaldi berezietako bat: *Gloria Fuertesi ikasitako poemak* deiturikoa. Bertan parte hartzeko, beharrezkoa da gonbidapena eskatzea, aforo kontuengatik. Emanaldia gaztelaniaz izango da.

Mursego lez ezaguna den Maite Arroita jauregi musikari eibartarraren eskutik, Fuertes-en poemak musikatuta entzuteko aukera egongo da Ibarretxe kultur etxean, 19:30ean. Biolontxelo eta beste zenbait tresna jotzen ditu Mursegok.

## Urriak 26

**‘Gloria Fuertes jolastuz’**, Oihana Etxegibel eta Peru Magdalena ipuin kontalariak 5 urtetik gorako umeentzat, 17:00etan eta 18:00etan, Herri Bibliotekan.

**‘Gloria Fuertesi ikasitako poemak’ irakurketa musikatua**, Mursegoren eskutik, Ibarretxen, 19:30ean.

**DURANGO deialdia**  
**Sorginolako txokoaren funtzionamendua adosteko bilera**, 17:00etan, Sorginola gaztetxean.

**OTXANDIO bisita gidatua**  
**‘Izenik gabeko emakumeen historia’ bisita gidatua**, **Ondarearen Europako Jardunaldien baitan**, 10:00etan (gaztelaniaz) eta 12:30ean, udaletxean.

**ELORRIO antzerkia**  
**‘Enperadorearen jantzia’ umeentzako antzerkia**, 17:00etan, Arriolan.

**DURANGO urteurren jaia**  
**‘Plateru’ ikuskizuna Plateruenaren 14. urteurrenaren baitan**, 19:00etan, Plateruenean.

**MALLABIA jaiak**  
**‘Urriko jaiak’**. **Tor magoa**, 16:30ean, probalekuan, **txokolatada**, 17:30ean, probalekuan, **mus txapelketa**, 17:00etan, Kontzejuzarrean

**DURANGO azoka**  
**Truke, bigarren eskuko eta doako azoka**, 10:00-14:00 bitartean, Andra Mariko elizpean.

**DURANGO erakusketa**  
**Santi Goñiren erakusketa**, 18:00etan, Ezkurdi aretoan.

## Urriko agenda



26

**“HERRI BIBLIOTEKA”**  
Haurrentzako ipuin kontalaria "Glup glup Gloria"  
Oihana Etxegibel eta Peru Magdalena  
Bi emanldi  
**17:00** (5 urtetik gorakoak)  
**18:00** (5 urtetik gorakoak)  
Sarrera: gonbidapenagaz  
**“BERRIRAKURKETA”**  
**19:30** "Gloria Fuertesi ikasitako poemak"  
**17:00-18:30** Club de lecture

27

**“ANDEREBIDE”**  
LEGAZPIra txangoa  
**8:30** "Maspe" irteera  
Informazio gehiago: Tel.: 616 49 05 06

31

**“HERRI BIBLIOTEKA”**  
**10:30-11:00** XL Kluba



Besteak beste, Mala Rodriguez  
arituko da Landako Gunean.

## Urriaren 30ean

**DURANGO musika**  
**‘MTV MUSIC WEEK. Urbano Femenino’**. **Mala Rodriguez, Nathy Peluso, Brisa Fenoy eta Aneguriaren kontzertuak**, 17:00etan, Landako gunean.

## Urriaren 31n

**ABADIÑO jaia**  
**‘Halloween Guatekea’**. **Pintxoak, edariak eta Baske Street Boys**, iluntzean, Ostendi ‘Kali’ jatetxean.

**DURANGO poesia**  
**The Best of Be Festival**, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

## Azaroaren 1ean

**DURANGO poesia**  
**The Best of Be Festival**, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

# Zine-ma

**:: Berriz KULTUR ETXEA**

• **Todos Lo Saben**  
barikua 26: 22:00  
domeka 28: 19:00

**:: Durango ZUGAZA**

• **El Fotógrafo de Mauthausen**  
barikua 26: 19:30/22:00  
zapateria 27: 19:30/22:30  
domeka 28: 19:15/21:30  
astelehena 29: 18:30/21:00  
martitzena 30: 20:00  
eguzatena 31: 20:00

• **La Noche de Halloween**  
barikua 26: 19:30/22:00  
zapateria 27: 18:00/20:15/22:30  
domeka 28: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 29: 18:30/21:00  
martitzena 30: 20:00  
eguzatena 31: 20:00

• **Pesadillas 2**  
barikua 26: 19:30/22:00  
zapateria 27: 17:00/20:15/22:30  
domeka 28: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 29: 18:30/21:00  
martitzena 30: 20:00  
eguzatena 31: 20:00

• **Christopher Robin**  
zapateria 27: 18:00  
domeka 28: 17:00

**:: Elorrio ARRIOLA**

• **El Viaje de Nisha**  
zapateria 27: 22:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:00

**:: Zornotza ARETOA**

• **Ola de Crímenes**  
zapateria 27: 22:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:15



# “Zuzeneko indartsu eta dantzagarriak eskaintzea da nire erronka, eta bide horretan zuzen ari naizela uste dut”

Urriaren 30ean MTV Music Week ekimenean parte hartuko du Aneguria rap abeslari bilbotarrak; martitzenean Landako Gunean, 17:00etan



**Ane San Miguel Crespo**  
Abeslaria

**Bilbo | 1984**

kontatzen dute. Lehenbiziko abestian, hilabete bi daramatzat musika egin barik, eta berriro hasi naiz gustukoaren dudana egiten. Sentsazio hori irudikatu gura izan dut, berriro maite duzun zerbait egiten duzunean pizten den hori. Bigarrenetan, osterat, liatu osteko azkeneko *after hour* hori irudikatu gura izan dut. Hirugarrenak, *Hostias Como Panesek*, abestitar komertzial bat egiteko instrumental bat zekarren; aproposa zen horretarako, baina barruak eskatzen zidan emakumeon egoerari buruz idaztea. Biolentzia handia sufritu dut nik, Banden Lehian bertan, adibidez. Abesten nengoela, gizon bat oholtzara igo eta hantxe geratu zen kontzertu osoan. Ez zuen hori beste taldeekin egin. Gizonezkoak zirelako suposatzen dut; emakume bakarraren kontzertuan egin zuen. Horrelakoetan, kolpeak banatzeko gogo sartzen zait, eta pentsatzen dut: zergatik jarri behar naiz ni biolento? Sentimendu hori abestiaren bidez islatu gura izan nuen.

**Bateragarria iruditzen zaizu herri mugimenduak antolatutako jai batean eta MTVren ekimen batean jotzea?**

Zentsurarik barik komunikatu badezaket, edozein dela ere testuingurua, zergatik ez dut joko? Imajinatu jai batzorde batean ez didatela uzten gaztelaniaz abesten. Edo egun more batean, gizonezkoak barik jo behar dudala. Zentsurarik ez dagoen bitartean, edozein lekutan abestu dezaket, naizen bezala agertu naitekeelako. Formatuak ez dit hainbeste axola. Plaza guztietan egon behar dudala uste dut. Zentsurarik gabeko espazioetan egongo naiz eta ez diot inon utziko baldintza duinak eskatzeari. Leku batean zein beste batean egon, ez dut jarrera aldatuko. Eta noan lekura noala, baldintza duinak eskatuko ditut. Horiek, zoritxarrez, ez dira ez batean ez bestean ematen. Nire zoritxarrerako, borroka konstante batean bizi naiz. Datorren urterako, nire helburua borrokarako espaziotik irteten eta plazeraren espaziora itzultzea da, kokoteraino nago eta beti horrela ibili behar izateaz.

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

**Geldi egoten ez dakien artista da Aneguria bilbotarra. 2018an lan bi kaleratu ditu eta hamaika kontzertu eskaintzen ari da horiek aurkezteko; horietako bi urrian, Durangon. Lehena, joan den astean, Durangoko txosnagunean. Urriaren 30ean MTV Music Week ekimenean parte hartuko du, Mala Rodriguezegaz, besteak beste. Zeresana eman du ekimen honen antolaketak eta Aneguriaren parte hartzeak.**

**Zelan joan zen jailetako kontzertua?**

Oso ondo pasatu genuen eta oso giro polita egon zen. Bideo irudiak proiektatzeko aukera eduki genuen eta bikain geratu zela uste dut; giro berezia sortzen lagundu zuen. Nire disko denetako kantutak jo nituen.

**'Percebe Dena Edo Ezebez' da zure azkeneko lana. Zer aurkituko du bertan entzuleak?**

Soinu propioa bilatzeko lanean nabil batez ere, eta hori islatu gura

izan dut disko horretan. Kalitatezko musika ere eskaini gura nuen. Oraingoan ikaragarri harritu naiz nahasketekin. Abestien erdietan doinu elektronikoak jorratzen dituen ekoizle bategaz lan egiteko aukera eduki dut, Edu Ostosegaz; besteetan, doinu komertzialagoekin lan egiten duen ekoizle bategaz egin dut lan, Ikkigaz. Ezagun dute itzelean maite eta zaintzen dutela soinuak. Asko ikasi dut.

**Zer dela eta aukeraketa hori?**

Ostosen piezak, adibidez, egun-

doko esperientzia sonoroa direla iruditzen zait, izan ere, hiru dimentsiotan dago soinuak; bozgorailu onak edukiz gero, sekulako esperientzia da. Niri dantzarako musika egitea gustatzen zait eta zuzeneko indartsu eta dantzagarriak lortzea da nire erronka. Uste dut, bide horretan zuzen ari naizela.

Dantza egiteko proposamena eskaini gura nuen, eta, zentzu horretan, lortu dudala uste dut. Hala ere, esango nuke erdibidean geratu naizela diskoagaz. Epe baten barruan kaleratu behar nuen, eta horrek baldintzatu egin nau. Ahotsak bikoiztea gura nuen, eta koroak ere gehiago lantzea. Banden Lehia irabazi, eta sei hilabeteko epea nuela esan zidaten. Horrez gainera, beste diskoan ere banenbilen lanean, nire kontura. Beste modu batera lan egitea gustatzen zait, gurago dut gauzak beste era batera egin. Dena den, kalitatezko lana dela iruditzen zait, soinuari begira, batez ere. Esperimentu ederra izan da.

“**Oraingoan nigaz lan egin duten ekoizleek itzelean maite eta zaintzen dute soinuak. Asko ikasi dut**”

**Abesterakoan, gaztelania eta euskara tartekatzen dituzu. Zeren arabera egiten duzu aukeraketa?**

Instrumentala entzuterakoan pizten zaidan sentimenduaren arabera idazten dut. Erritmoak, melodiak eta sentimenduak aukeratzen dute hizkuntza bat edo bestea. Euskaraz inprobisatzen dut rapean edota reggaea, hori egiten duen emakume bakarretakoa naizela uste dut. Urduri jartzean bapateko hori euskaraz irteten zaidalako da.

Disko honetan, adibidez, lehenbiziko hiru abestiek bidaia bat

“**Zentsurarik gabeko espazioetan egongo naiz eta ez diot inon utziko baldintza duinak eskatzeari**”



# Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**  
PSE: 93/18

 **mam ginekologia zentroa**

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO  
T 946 05 53 04  
info@mamginekologiadurango.com  
www.mamginekologiadurango.com

**HITZORDUA ESKATU**  
**674 322 360**

 **Naturopatia**  
PSE: 49/18

 **NAROB**  
Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea  
Drenatze linfatikoa.  
Osteopatia.  
Tratamendu naturalak  
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango  
675 706 599  
www.naroba.net

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

 **pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Fisioterapia**  
PSE: 155/17

 **HOBETU**  
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es  
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2  
P.K./ 48230 Elorrio  
www.hobetu.es

 **Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO  
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA  
Podologoa  
AINHOA ELORZA  
Podologoa  
NEREA RODRIGUEZ  
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,  
alteraziodermatologikoak  
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO  
946 203 630

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

 **clínica dental hartz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}  
DURANGO  
Tel.: 946 819 951  
Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**  
PSE: 112/13

 **J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**  
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa  
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren  
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
48200 - DURANGO  
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**  
PSE: 62/11

 **JON ARRUBARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Optometria**  
PSE: 162/13

 **keinu**  
optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

 **Pedagogia**  
PSE: 63/63

 **UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,  
psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazarán, 1 behea**  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**



# “Durangon Plateruen plaza dago, Plateruena daukagu, baina inor gutxik ezagutzen ditu plateruak”

Plateruena kultur guneak 14 urte beteko ditu eta domekan urteurren festa ospatuko dute; 'Plateru' ikuskizuna prestatu dute inguruko hainbat artistek, eta dantza, berba eta zuzeneko musika uztartuko dituzte jairako sorturiko obran



'Plateru'-n parte hartuko duten artista batzuk.

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

Aritz Lasarguren, Erika Lagomak eta Matxalen Ertzillak zuzendu dute 'Plateru'. Dantza, berba eta zuzeneko musika nahasten dituen ikuskizunaren nondik norakoak

azaldu dituzte lehenbiziko biek. Ia hogeitazortazalek parte hartuko dute.

**Zer kontatuko duzue 'Plateru-n'?**

Aritz Lasarguren: Ixone Aromak eta biok ikuskizun bat egin gura

genuen, ondo pasatzeko, baina zerbait kontatzeko baliagarria izango zena. Durangon, Plateruen plaza dago, Plateruena daukagu, baina inork gutxik daki nortzuk izan ziren plateruak.

**Lagun asko batu zarete.**

**Erika Lagoma:** Landuta zeuzkaten koreografiak harilkatzeko jo zuten nigan.

**Nortzuk ziren plateruak?**

**A.L.:** 1800. urtearen bueltako anaia bi ziren, *farandularen* mundukoak. Guk espiritu hori daukagu eta haien ondorengoak gara. Anaia bi horiek famatuak ziren, baina arreba bat ere bazutela agertzen da testu batean.

**E.L.:** Hari horri tiratu gura izan diogu, baina ez biografia huts bat kontatzeko. Abiapuntu moduan hartu dugu, baina sorturiko istorioagaz gaur egungo jendartearen hausnarketa eragin gura genuen.

**Aurrera begira, baduzue zerbait gehiago egiteko asmorik?**

**A.L.:** Zenbait diziplinatako jendea bildu gara. Beharbada ez gara horren kontziente, eta hau abiapuntu bat izan daiteke.

**E.L.:** Plateruenak horixe izan behar du. Euskal Herriarentzat plaza modura sortu zen, eta biziko da, horrela erabiltzen bada.

## Silboberrik 'Txoriei' ikuskizuna berreskuratuko du Txistu Kontzerturako

Zapatuan, urriak 27, 20:00etan ikusi ahal izango da emanaldia, San Agustin kulturgunean. Doakoa izango da.

**MUSIKA • A.M.**

Aurten ezingo dute Txistu Kontzertua egin, eta, hori ordezkatzeko, *Txoriei* ikuskizuna berreskuratuko du Silboberri elkarteak. Proiektu musikal honek txorien txioa imitatzen du. Horretarako, musika tradizionala eta garaikidea uztartzen dute. Besteak beste, François Rossé eta Mixel Etxekopar musikariek

parte hartzen dute. Miguel Zeberio zuzenduriko Cuerda Et Incarnatus orkestra ere arituko da.

2015ean aurkeztu zuten ikuskizuna lehenbizikoz, eta ordutik arrakasta handia eduki du. *Txoriei* grabatu ere egin zen ostean, KDan publikatzeko. "Ikuskizun berezi bat da, publiko exigentearentzat egindakoa", diote Silboberrikoek.



Cuerda Et Incarnatus.

**Geure Durangaldea**

Ainhoa  
Urien Telletxea  
Ikaslea



**Mundiala!**

Pasa den astean zehar jokatu zen Bartzelonan Munduko Pilotari Txapelketa. Zer pentsatu handia eman dit orokorrean txapelketak, eta baita konkretuki jazo zen egoera batek ere.

Arretaz jarraitu dut mundiala, baina hurbiltasun eta afinitate pertsonalagatik emakumezkoen paleta partiduei jarri nien atentziorik handiena. Horietako modalitate batean, "30 metroko frontoia" izenekoan hain zuzen ere, ezagun ditudan pilotari bi iritsi ziren finalera Espainia ordezkatzeko: Amaia Irazustabarrena hernaniarra eta Maider Mendizabal anoetarra.

Poz handia hartu nuen beraien finalera iristeagatik, eta irrikaz eseri nintzen bi partidua ikustera. Frantzia ordezkatzeko zuen bikotea zuten aurrez aurre: Maritxu Housset arbonarra eta Aizkoa Iturriño baionarra. Gipuzkoar bi lapurtar biren aurka, beraz. (Zorionak laurei!)

Eta, bat-batean, pilotarien hanken atzera-aurreri baino gehiago hasi nintzen erreparatzen zerabilten hizkuntzari. Lau finalista, lau euskaldun, lau euskal hiztun, euskara etengabe zapaltzen duten bi estatu ordezkatzeko.

Egoera paradoxikoaz jabetu eta momentu hartan, kantxa hartan, pilota kolpeen eta pilotarien korrikaldien artean, kamisetak ahaztu eta hizkuntza berean komunikatzen diren lau lagun ikusi nituen.

Iparralde-Hegoalde arrakala gero eta zabalagoa den honetan, Bidasoa ibaia pixka bat estutu zela sumatu nuen, bi estatuen mugak banatutako lurraldeak hizkuntza berean pilotan egiten zuelarik. Beste behin, euskarak egin zuen hegan frontera latzaren gainetik; honezkero ikasi diogu Sarrionandiari euskara dela gure territorio libre bakarra.

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**

**Urriak 28 · 19:00etan**

**PLATERU SENTIKARIA**

**Jaialdia**

**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jaletxea@plateruena.net

ARITZ LASARGUREN OZTERNAIUREGI  
ERIK LAGOMA POMBAR  
MATXALEN ERTZILLAK ETXEGIBEL  
IXONE AROMAK  
MAIDER ZURZARRIETA MALAETXEBARRIA  
ENKO TXINTXURRIETA OMAETXEA  
JUAN ANTONIO ARCONA LEIARRIETA  
UMBARRI ATXOTEGI ORANOA  
ANE GABRIEL LOZATE  
JONE ERTZILLA ETXEGIBEL  
JESUS HERNANDEZ LEZIOBURU  
ANTONIA GONZALEZ ATUTXA  
JOSU FERNANDEZ PEREZ  
LEON BARRUTIA EPELDE  
JIMEN GALLASTEGI BUREN  
JIMEN GALLASTEGI BUREN

**The Best of Be Festival**

**Urriak 31, eguaztena**  
20:00etan

**Take Care of Yourself**

**Someone Loves You Drive With Care**

**Control Break**

San Agustin KULTUR GUNEA  
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus





**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



# Txakur Gorria sormen kolektibo gazteak egin du 53. Durangoko Azokarako irudia

Abenduaren 5etik 9ra izango da aurtengo Durangoko Azoka; egile gazteengana jo dute aurten antolatzaileek



Txakur Gorriako kideak Nerea Mujikagaz batera.

**DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO**  
DA! asko dira! leloagaz euskal kulturaren aniztasuna islatu gura izan dute antolatzaileek. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko lehendakariak nabarmendu duenez, Durangoko Azoka bakarra da, baina, aldi berean, Azoka asko biltzen ditu

bere baitan: "DA! bizitzeko modu asko daude. Batek Azoka ikusi egiten du, besteak entzun, batzuek abestu, norbaitek ukitu, bakarren batek laztandu, agian usaindu, edo dastatu, askok irakurri eta beste hainbatek sentitu". Leloaz gainera, 53. Durangoko Azokako kartela ere

aurkeztu dute aste honetan. Edizio honetako kartela Txakur Gorria sormen kolektiboak landu du. Afixeko irudia Landako guneko eraikinean oinarrituta dago eta bertako mugimenduak irudikatzea gura izan dute egileek. "DA!-ri erritual izaera aitortzen badiogu, interes-

**Mariñe Arbeo, Malen Amenabar, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal dira Txakur Gorria kolektiboa**

garria da bertan antzeztan dugun performanceari erreparatzea", azaldu du Mariñe Arbeo kolektiboko kideak. "Landakon performatzen ditugun mugimendu guztiak iradoki gura ditu, errotuladore ibiltariak bagina bezala, sarrera, irteera, geldialdi, orrialdeak pasatzeko keinu... mugimendu anitzak, baina osagarriak". Arbeogaz batera, Ane Labakak, Nerea Ibarzabalek eta Malen Amenabarrek osatzen dute Txakur Gorria. Hiru urte daramatzate

**"DA!-ri erritual izaera aitortzen badiogu, interesgarria da bertan antzeztan dugun performanceari erreparatzea"**

elkarregaz eta lehenbiziko urtetik standa jarri izan dute Durangoko Azokan. "Oso pozik jaso genuen Durangoko Azokaren eskaera, ilusio handia egin zigun", esan dute. Mujikak ere esker ona erakutsi zuen egileekiko. "Espresuki egin dute kartela, eta hori nobedadea da". Irudiaz gainera, testu batek osatzen du obra. Azken urteetan ibilbide luzeko sortzaileengana jo ostean, aurtengoan gazteagoengana jo dutela azaldu du Gerediaga elkarteko lehendakariak. "Benetako ohorea izan da, besteak beste, Nestor Basterretxearen edo Miriam Ocarizen arte plastikoekin osatzea Durangoko Azoka, baina kulturagune hau etengabe berritzen ari da eta aurtengo irudia sortzeko, sortzaile berriengana jo gura izan dugu", azpimarratu du Mujikak.

## Bizkarra eta Pagonabarraga finalaurrekoetarako txartelaren bila

Urriaren 28an saioa dute Aitor Bizkarra eta Gorka Pagonabarraga gazteek, Plentzian; Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetarako txartela lortzeko lehiatuko dira

**BERTSOLARITZA • A.M**

Domekan, urriak 28, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako laugarren kanporaketa jokatu da. Bertan Aitor Bizkarra abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarrak abestuko dute. Saioaren irabazlea zuzenean sailkatuko da azaroaren 18an Berrizen jokatu den finalaurrekora.

**Altube, finalaurrekoetara**

Zornotzako saioa irabazita, Txaber Altubek Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetarako txartela eskuratu du; 478 puntu lortu zituen abadiñarrak Zornotzan jokaturiko kanporaketan. Lekeition abenduaren 1ean jokatu den finalaurrekoan kantatu du Altubek.



Txaber Altube Zornotzako kanporaketan.

| <div> </div> <div> <b>Zehaztutako Lanbide/Hobetuz 2018-2020ko behin betiko ebazpena</b> </div>                                                                                                                                           |       |                      |         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|----------------------|---------|
| <b>2018- 2020 IKASTURTEKO IKASTAROEEN ESKAINTZA</b>                                                                                                                                                                                      |       |                      |         |
| <small> <b>INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA</b><br/>           www.ibaizabalikastola.eus * 94 621 58 77 * ikastaroak@ibaizabalikastola.eus<br/>           IZENA EMATEKO EPEA: IKASTAROA HASI BAINO ASTE BAT LEHENAGORA ARTE         </small> |       |                      |         |
| IKASTAROA                                                                                                                                                                                                                                | ORDUA | HASIERA DATA         |         |
| <b>PROFESIONAL YASUN ZIURTAGIRIA</b>                                                                                                                                                                                                     |       |                      |         |
| AFDP0109 - UR INSTALAZIOETAKO SOROSPENA                                                                                                                                                                                                  | 290   | 2018ko abenduaren 3  | LANBIDE |
| AFDP0209 - UR EREMU NATURALEKO SOROSPENA                                                                                                                                                                                                 | 180   | 2019ko martxoaren 15 | LANBIDE |
| AFDP0109 - UR INSTALAZIOETAKO SOROSPENA                                                                                                                                                                                                  | 290   | 2018ko abenduaren 3  | LANBIDE |
| AFDP0209 - UR EREMU NATURALEKO SOROSPENA                                                                                                                                                                                                 | 180   | 2019ko martxoaren 15 | LANBIDE |
| SSCS00100H - PSIKOMOTRIZITATEA NAGUSIENTZAT                                                                                                                                                                                              | 20    | 2018ko abendua       | HOBETUZ |
| SSCI002PO - DOLU-EGOERAN DAUDEN FAMILIEI ARRETA EMATEA                                                                                                                                                                                   | 70    | 2019ko otsaila       | HOBETUZ |
| SSCE0112 - MF1429 2- HEZKUNTZA-BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZEA HEZKUNTZA-ZENTROETAN                                                                                                                                           | 120   | 2019ko otsaila       | HOBETUZ |
| SSCG0209 - MF1039_3 - GIZARTE-BITARTEKOTZA: GATAZKEN PREBENTZIOA                                                                                                                                                                         | 70    | 2019ko otsaila       | HOBETUZ |
| SSCG00020H - AUTOZAINITZA: ZAINITZAILENTZAKO ZAINITZA                                                                                                                                                                                    | 12    | 2019ko martxoa       | HOBETUZ |
| SSCE00220H - MOODLE ETA GOOGLE TRESNAK                                                                                                                                                                                                   | 20    | 2019ko martxoa       | HOBETUZ |
| SSCE148PO - ARBEL DIGITALAK (AURRERATUA)                                                                                                                                                                                                 | 30    | 2019ko apirila       | HOBETUZ |
| SSCE00030H - ESTRESAREN KUDEAKETA ETA OSASUNA                                                                                                                                                                                            | 40    | 2019ko apirila       | HOBETUZ |



# Zirkuitu eraberritu batek nazioarteko txirrindularirik onenak batuko ditu Elorrioko landetan, domekan

9:00etan hasiko dira lasterketak, San Joseko landetan, eta 14:30era arte ziklokrosagaz gozatzeko aukera egongo da



Ismael Esteban eta Felipe Orts Elorrioko lasterketan.

## ZIKLOKROS • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste urte batez, Bizkaiko ziklokros probarik beteranoena UCIko mailarik altueneko lasterketa izango da. Aurtengoan ibilbide eraberritua aurkituko dute Elorriora doazen txirrindulariek. Orain arte, San Joseko eta hilerri inguruko lan-

detan egiten zen ibilbidea, baina, orain, San Joseko landetara mugatu dute antolatzaileek. Hori horrela, aurtengo ibilbideak 2.503 metro izango ditu. Horrez gain, zirkuituaren norazkoa ere aldatu dute. "Domekakoa ikusgarria izango da zaleentzat, eta txirrindularientzat

ere oso polita; espektakulua ziurtatuta egongo da", adierazi du Joseba Gorostiza antolatzaileak.

Aurtengoa ere UCIko mailarik altueneko lasterketa izango da. Horrek Espainiar Estatuko eta nazioarteko txirrindularirik onenen presentzia ahalbidetu du. Gizonez-

koen lasterketak, esaterako, izen handiko txirrindulariak batuko ditu: Aitor Hernandez, Felipe Orts, Vincent Baestanes, Bran Merlier, Dario Tyelen eta Ismael Esteban, besteak beste. "Jende oso ona egongo da domekako proban eta podiuma lortzea zaila izango da. Hala ere, bertan egoteko borrokatuko gara", adierazi du Aitor Hernandezek.

Emakumezkoei dagokienez ere, nazioarteko txirrindularirik onenak egongo dira irteera lerroan. Helen Wyman, Manon Bakker, Jinse Peeters, Lucia Gonzalez eta Aida Nuño izango dira lasterketako borrokan egoteko faborito batzuk. "Emakumezkoetan nazioarteko partaidetza izugarria izango dugu eta hori pozgarria da", adierazi dute antolatzaileek. Idoia Buruaga alkatetik eskerrak eman dizkie proba hau antolatzen dabilatzane, parekidetasunaren alde egiten duten apostuarengatik.

Bestalde, junior mailako lasterketa ere nazioarteko lasterketa izango da, eta kadete mailakoa, Espainiako Koparako puntuagarria. Maila bi hauetan ere "etorkizun handiko" txirrindulariak egongo direla esan dute antolatzaileek.

"Ohorea da Bizkaian horrelako lasterketa bat izatea, eta federazioetik babesten jarraituko dugu", esan du Agustin Ruizek.



## Azkorbebeitia eta eskualdeko hainbat korrikalari, bikain Hiru Haundietan

### HIRU HAUNDIAK • J.D.

Joan zen asteburuko Hiru Haundiak proba bigarren tokian amaitu zuen Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak. Hauxe izan zen bere denbora: 13.01.37. Ezkerreko iskiotibialean sortu zitzaion kontraktura eta guzti ere, helmugara heltzea lortu zuen. Eskualdeko korrikalari-kin jarraituz, Leire Muniain iurretarrak azpimarratzeko moduko lana egin zuen, zortzigarren tokian amaituta (16:48:57). Oihane Unzalu Abadiñon bizi den berriztarrak 13. postua lortu zuen (17.34.05) eta Eba Urizar durangarra 19. tokian helmugaratu zen: 18:23:46.

Gizonetan, Eneko Garita-goitia mallabitarrak lasterketa bikaina egin zuen eta sailkapen nagusiko 12. postuan geratu zen (12.41.34). Probako zati luze batean Azkorbebeitiagaz batera joan zen.

# Euskaldunek mexikarren kontra jokatu dute Tornosolo Kopako finalean

Munduko azpitxapeldunak diren mexikarrek Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugarte izango dituzte aurkari domekan



Boliviako eta Peruko pilotariak euskal pilotariekin Abadiñon, astelehenean.

## TRINKETA • J.D.

Trinketea dauden bi bikoterik onenetakoak Abadiñon batuko dira domekan, 18:00etan, Tornosolo Kopako finalean. Bikote bat euskalduna da, eta bestea, mexikarra. Ekhi Ziarrustak eta Inhar Ugartek osatzen dute bikote euskalduna. Gaur egun inguruotan gaitza da eurek baino bikote sendoagorik aurkitzea. Finalerdietan denon bistan gelditu zen euren maila, Aitor Arabiourrutiari eta Eñaut Esnaolari 30-11 irabazi zieten.

Euskaldunek dena beharko dute mexikarrek menderatzeko. Orlando Diaz eta Martin Cabello munduko azpitxapeldun geratu dira oraintsu Bartzelonan. Tornosolo Kopako finalerdietan sasoi betean zeudela erakutsi zuten, David Alvarez Stich eta Asier Aspuru 30-16 menderatuta.

Final horren aurretik, Nazioarteko Pilota Txapelketaren barruko beste bat egongo da. Aste honetan zehar Bolivia, Peru eta beste hainbat herrialdeetako pilotariak igaro dira Abadiñotik. Baina euskaldunak gehiago izan dira eta finala euskaldunen artekoa izango da

**BERRIZKO**  
**ZIKLO - KROS**  
SARI NAGUSIA

**Master** 10:00  
30/40/50/60

**Kadete** 11:00  
Neskek eta mutilak

**Junior** 12:00  
Mutilak

**Junior, Sub-23 eta Elite** 13:00  
Neskek

**Sub-23 eta Elite** 13:00  
Mutilak

**AZAROAK 4**  
BERRIZBURUN

**Berrizko** bizikletari elkarteak  
Mazda Norkar  
anboto komunikabiltasun  
kutxabank  
dinamika  
Deia  
berrizko

www.berrizbizikletarielkarteak.com



## Urkiolako parke naturaletik mendi martxa eta lasterketa egingo dituzte etzi

KORRIKA • J.D.

Urkiolako parke naturalak ha- maika ibilbide eder egiteko au- kera eskaintzen du. Horieta- ko batzuk erabiliz, mendi martxa eta lasterketa bana antolatu ditu Abadiñoko Sekulebedarra kirol klubak domeka honetarako.

Bata zein bestea Urkiolatik hasiko dira, Santutegi inguru- tik. Mendi martxari 09:45ean ekingo diote eta lasterketa 10:30ean hasiko da. Ibilbideak 13,5 kilometroko luzera du eta Saibigain gainetik igoko dira.

Izen-ematea aurretik egin ez duenak egunean bertan beste aukera bat izango du proba hasi baino orduerdi lehenagora arte. Lasterketarako izen-ematea ha- mabi euro izango da eta mendi martxarakoa, zortzi euro.

Lasterketako lehenengo hiru sailkatuek, emakumeetan zein gizonetan, garaikurrak jasoko dituzte. Horrez gainera, proba- ko parte-hartzaile denentzat opariak egongo direla aurreratu dute Sekulebedarra klubeko antolatzaileek.

# Gau Krosak laugarren aldiz argituko ditu Durangoko kaleak

Zapatu iluntzean Santa Ana paretik abiatu eta Alde Zaharretik eta Ezkurditik ibiliko dira parte-hartzaileak



Iaz umeen eta nagusien lasterketak batuta, 500 bat lagunek parte hartu zuten Gau Krosean.

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Gau Krosak lauga- rren aldia egingo du zapatuan. Santa Ana pareko plazan batuko dira partaideak. Hantxe hasi eta amaituko dira lasterketa guztiak, eta, giroa animatzeko, askotariko ekimenak egongo dira. Proben amaieran hainbat sari zotz egingo dituzte: afariak, otzarak...

Nagusien lasterketa 20:00etan hasiko da. Bost kilometroko ibilbi- deak Alde Zaharretik eta Ezkurdi ingurutik eramango ditu parte- hartzaileak.

Hitzordu horren aurretik umeen lasterketak egingo dituzte, adinka banatuta. Alde Zahar- rean ibiliko dira. Santa Anan eszenatoki bat jarriko dute eta gaztetxoek ani- matzaileekin eta diskodantzagaz gozatu ahaliko dute.

